

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

saski-naski

SALDUENAK

Fikzioa

- 1. **Aitaren etxea**
Karmele Jaio. Elkar.
- 2. **Miñan**
A. Arzallus, I. Balde. Susa.
- 3. **Dendaosteokoak**
Uxue Alberdi. Susa.
- 4. **Koplariak**
Korrontzi, Xabier Amuriza. Elkar.
- 5. **Kilker bat autopistan**
Bernardo Atxaga. Pamiela.
- 6. **lñurrategi anaiak**
R. Olasagasti, C. Llaguno. Susa.

Ez Fikzioa

- 1. **Gauzak direna balira**
Joseba Sarrionandia. Pamiela.
- 2. **Ni naiz. Antologia**
Xabier Lete. Elkar.
- 3. **Etxeko landareak**
Jakoba Errekondo. Argia.
- 4. **Sed quia sua**
Iñaki Segurola. Erein.
- 5. **Naparra. Kasu irekia**
Jon Alonso. Elkar.
- 6. **Pentsamenduaren historia Euskal Herrian**
Joxe Azurmendi. Elkar.

KRITIKA HASIER REKONDO



'Cinema Paradiso' ren eldarnio garratza

TITULUA: 'ARGIANTZA'

EGILEA: PELLO LIZARRALDE

ARGITALETXEA: EREIN, 2020

PELLO Lizarralderen (Zumarraga, 1956) literaturaren gainean topikoak erabiltzea arras erraza da. Beti idazten omen du liburu bera. Bere nobeletan ez omen da gauza askorik igarotzen. Oso ondo idazten omen du, sintaxi garden baten jabe, artifiziorik gabe. Gainbehera existentzial zein materialetan ederki moldatzen omen da. Idazleen idazlea omen da. Topikoak eta tabuak haustekoak omen direnez, esango nuke topikook arrazoï dutela neurri handi batean, eta aldi berean ez dutela batere asmatzen.

Argiantza (Erein, 2020) azken nobelan Zumarragan jaio baina Nafarroan bizi den idazleak batzuei memorian iltzatuta geratu zaien iragan batera egin du jauzi. Denborak dena lausotzen omen du, ondo garatu memoria literarioa izan ezik. Ramon Beitia 1982ko iraileko denbora-espazioan kokatu du, gainbehera datozen hainbat zinema aretoren gerente dugu. Iraila sargori hartan murgiltzeaz batera, Beitiak Nafarroako erresuman zehar bideoaren etorrera dela eta lehen arazoak jasaten ari diren zinema aretoz

areto bidaiatuko du, John Cheever-en *The swimmer* nobelako protagonistaren antzera, desagertzeaz dagoen mundu baten berri emango digu. Errealitate hits, bortitz eta jasanekin batetik jauzi egingo du Beitiak Lizarralde berezkoak dituen eremu natural zein industrializatuen deskribapen soil bezain kasik mistikoak lagun.

Argiantza honetan narrazioari tentsio gehiago ematen dioten elementu gehiago gehitu baditu ere, Lizarralderen literaturan gertatu ohi denez, narrazioaren abiapuntu besterik ez da istorioa: gehiago dira kontaktzen ez direnak kontaktzen direnak baino, edo gehiago ez badira, askotan gehiago adierazten dute. Spoilerrean erori gabe, horren guztiaren harribitxi bat aurkituko du irakurleak nobelaren azken paragrafoan.

Narrazioan aurrera egin ahala, badira, halaber, estasirako uneak, Lizarralde denboran iltzatzen diren xehetasunenetakako artilleria ateratzen duenean. "Eguzkiak bete-betean jotzen zuen paperaren orban zuri eta berde argietan. Hatzak tarte ñimiño marra



"(...) gehiago dira kontaktzen ez direnak kontaktzen direnak baino, edo gehiago ez badira, askotan gehiago adierazten dute"

paraleloak kórritu zituen behetik gora, eta ezker-eskuin zihozzen beste birekin osatzen zuten elkar-keta puntuan geratu zen". Idaztea zer den lagunok!

Aurreneko *Elur bustia* (Erein, 2016) nobelan krisialdiak kolpatsu Ramiro gizon edadetuaren gainbeheraren ondorengo "iniziazio" istorio bat kontaktzen zuen gisa, oraingo honetan zinematik oparitutako iragan distiratsu baten gainbehera lausotua aukeratu du Lizarralde, nago bere moldean bizitzaz gozatzeko elementu gehiago tartekatu dituela, nostalgiaz harago: *Cinema Paradiso*-rekin egin litezkeen paralelismoak lar errazak diren arren, Ramon Beitiak ostatueta eta naturan zehar egin ibilaldiek gainbeheren kontrako oasi bakanak izan litezke. Amaierak amaiera, berriro ere spoilerrik egin gabe, nobela honek badu zerbait gozagarriagoa aurrekoak ez bezala, halere, zaila da oso definitzea. Ez da iragana, ez da etorkizun baten promesa, ez da estilo literarioa, ez da zinema, ez da suizidioa, beste zerbait da. Agian denok gogoan dugun eta inoiz itzuliko ez den zinema areto hartako argi eskas hura izan liteke.

ERAKUSLEIHOA

NARRATIBA
'Gauzak direna balira'

Joseba Sarrionandia, Pamiela.
3B orr. 18 euro



Habanako gaukaria edo itzartasun ariketa bat

Idazkera eta liburu molde baten hirugarren parte da. Bizitza ez al da oso amiskutsua? Izan zen lehenengoa. Aire ez da debalde bigarrena, eta Gauzak direna balira hau da azkena. Habanako gaukaria azpititulua-rekin heldu den trilogia. Gaukaria: neologismo natural horrek iradokitzen du iluntasunari eta lozorroari kendutako izkribuak direla. Habanako bazter-aurzo batean bizi da idazlea 2019ko urtik 2020ko pandemiaren udaberria arte. Baina bere gogoez egunerokotasunetik hedatzen dira espazioan eta denboran.

NARRATIBA
'Mendiko gaitza'

Idoia Garzes. Elkar. 244 orr. 21 euro.



Mendizale desagertuaren inguruko misterioa

Gailur bateko buzoian aurkitutako txartela hartzen duenean, dena aldrebesten zaio Arlet Anaui protagonista: duela urtebete desagertutako mendizalearen heriotzarekin lotuko dute, eta triangelu bitxi batean endredatuta ikusiko du bere burua: alde batean bera, bestean Errementeria ertzain baboa, eta erdian, hari guztiak mugituz mendizale desagertuaren emazte Maitena, alargun beltz erabatekoa, erakargari bezain amiskugaria. Helduentzako bere lehen eleberrin honetan izugarriko trebezia erakusten du Idoia Garzesek.

ZALDI EROA

